# danon artean

## Editoriala

Maiatzaren 27an, bete egin genuen geure helburua: Larrabetzun politika egiteko egozan izakera ideologiko biek hirugarren bategaz aberastu ziren. Lau astetan lan eginda, zinegotzi bat lortu genduan botoen %17gaz.

Lortutako emaitzak eta zazpi hilabete beharren batera ibiltzeak hurrengo ondoriora ekarri gaitu: **Larrabetzurako izango den talde politiko bat sortzeko beharrizana ikustera**. Gaur egun sartuta daude erregistroan, horretarako behar diren dokumentu guztiak. ***danon artean*** izango du izena eta goian ikusten duzuena da beran anagrama.

***danon artean***-ek berezkoa izango duen asanblada eratuko du.

***danon artean***-ek bere erabakiak hartuko ditu. eta Udal mailan EB,Bko zinegotziari dautsola egingo du behar. ***danon artean*** EB,B-Aralaren inguruko linea politikoan zabalean ibiliko da eta bere asamblada propioa izango du. ***danon artean***-ek erabiliko duen zinegotzia bat bakarra den arren, honen erabakiek pisu handia deukie. Hau dela eta, buletin honen azken aldean aurkituko dituzun helbideetara deitzeko eskatzen dizugu. Eguneroko erabakiak hartzeko, zeuk ere parte hartzeak denok aberastuko gaitu eta.



**Buletina zertarako**.

Buletin honen lehenengo zenbakiak dituen helburuak:

1-danon artean talde politiko moduan eratzeko hartu dugun erabakiaren barri emon

2 -Maiatzan emon gendun berbiari eutsi. **danon artean**-en sartzeko eskaria eta animua herritarrei zabaldu.

3-Udalean sortu leitekezan Kontseilu Sektorialetan sartzeko jendea animatu.

## Hirigintzaz hiru barri

**Hirigintza Plan Orokorra**

Proposatzen zen hazkunde eredua egokia ez zelako ikusten eta, herritarren iritziak batu eta bideratzeko baliabideak eskasak izan zirelako, aurreko legealdian aurkeztutako **planeamendu urbanistikoa bertan behera utzi** da. Hiru udal taldeak lan komuna eginaz, planeamendu berria egiteko metodologia prestatzen dabiltza herritarren partehartzea bermatzeko.



**Errebale2, Eleizoste 7 eta 9 etxeak**. Irregulartasunak aurkitu dira Larrabetzuko patrimonioaren barru degozen hiru etxeetako obra lizentzietan. Errebale 2 kasuan lizentziaren legezko egokitzapen bat egin da. Eleizoste 7 eta 9 kasuetan lizentziak bertan behera gelditu dira. Herritar baten eta Udal arkitektoa eta lege aholkulariaren informeak sakon aztertzen gabiltza hiru talde politikoak. Lizentzietan agertzen diren bolumenak askoz handiagoak dira legez izan behar direnak baino eta egoera, arduratuta egoteko modukoa da. Eta galdera bat buruan: zerk bideratu dau egoera hau eta non dago eta nork du erantzukizuna? eta beste bat: hiru eraikuntza berri izango doguz herrian, baina non geratu da etxeon jatorrizko patrimonioa?

**Errotondak eleizalden:** Auzoari eta egin diren eta egingo diren eraikuntzei sartu-urtena emoteko eta ibilgailuen abiadura moteltzeko Eleizalden eta Goikolan errotonda biren aurreproiektua du Foru Aldundiak. Hau eginaz, eliz inguru guztia oinezkoen gunea bihurtuko litzake,

Elizaldeko auzokideek horren berri jakiteko interesik izanez gero, Udaletxean badago oinarrizko plano bat ikusi eta kontsultatzeko.

# udal lana

**Lan giroa**. Maiatzeko hauteskundeak izan zirenetik 7hile joan dira eta heldu da udaletxeko egoera berriaren lehen balorazioa egiteko garaia. Aurreko urteotan bizitako egoera eta gero, Udaletxeko giroa beroa izango zela ematen zuen, baina hiru udal taldeen arteko lana oso garbia eta emankorra izan da orain arte. Horren erakusgai nagusia da 2008 urterako zerga eta tasak adostasun osoa ez bada egon be, hiru taldeen lan komunaren ondorioz lortu direla.



**Udaleko plenoak**. Hilabete bakoitzeko laugarren asteko eguenetan, arratsaldeko 8retan egiten dira, herritarren parte hartzea posiblea izango da epe laburrean. Hiru udal taldeak honetarako araudia prestatzen dabiz. Herritarren parte hartzea Udal Batzordeetara ere zabalduko da.

**Aurrekontuak**. 2008ko aurrekontuak egiteko herritarrek egiten dabezan iradokizunak jasotzeko prozesua zabaldu da eta udalak etxe guztietara bidali du informazioa. Parte hartzen animatzen deutsuegu. 9an batzarra Angulerin eta 14an iradokizunak egiteko azken eguna.

**Alkatearen soldata**. Arteragokoa 48.000€koa bazen ere, EB,B-Aralarek 40.000 proposatu *zeuen* eta EAE-ANVgaz 32.000koa, bien arteko adostasuna lortu eta gero 36.000€ko soldata ezartzea erabaki zen.
Alkatea eta kontzejalen lana arautuko duen proposamenak ere eginak dagoz eta adostasunetara helduko direla itxaron leiteke.

# Gure izaera

***danon artean*** ideia: Lan publikoa egiten denean, Udalean edo herrian, hiru talde politikoak inplikatuta egin behar da eta, hautatzen diren bideak, hirurak parte hartzen deituak, eta protagonista sentitzeko modukoak izan behar dira. Gaur esan leiteke, uda la hiru talde politikoen artean gestionatzen dela eta egoera honen merituа guztiona dela.
**Udalgintza.** Udala da, herritarrek geure bizitza komuna antolatzeko dugun erakundea. Udala arlo guztietan, ekintzaile moduan ulertzen da herritarren ordezkari nagusia den neurrian. Baina hau egia izateko ezinbestekoa da herritarrak bere aldetik protagonista bihurtzea.
**Parte hartzea**. Herritarren eguneroko iritziek udalera heltzeko bideak behar dira. Hirigintzan, aurrekontuetan, zerga eta tasen onarpenetan, herritarren iritzia jasotzeko neurriak hartu behar dira. Alkate eta zinegotziekin berba egin, Udal postontzia eta interneta erabili, herri batzarretan parte hartu. Udalak bere aldetik, plenoa eta batzordeak ezeze, badu zer eskaini: Elkarrizketa zuzenak, Interneta, Udal-aldizkaria, eta herri batzarrak. Guzti hau zelan egin da hurrengo lau urteotarako dugun lan erakargarria.

**Politika egiteko printzipioei erreparatuta.** Helmuga eta bidea biak egin behar dira baina **danon artean**-ek bideari erreparatu gura deutso. Gisazko bideak gisazko helmuga bermatzen deurielako. Hiru honeik dozuez gure lan politikoaren oinarrizko printzipioak:
1. Bide baketsuen praktika eta aldarrikapena.
2. Giza, zibil eta politiko eskubideen aldarrikapena.
3. Estrategia politiko militarren, mehatxu eta hondatze eta errepresio politikoen kontrako jarrera argia eta orokorra.

Hiru hanka hauek osatzen dute ***danon artean***-en bide etikoa, bat kenduz gero, ebaki egiten da bidea eta horregatik, politika egiteko bide gizatiarrak baino ez ditu praktikatu eta onartzen.




# kontaktoa

**Gure taldearekin harremanetan egon gura baduzu kezkak azaltzeko, ideiak aurkezteko edo gurekin lan egiteko hainbat bide dauzkazu:**

**-Astelehenero egoten gara udaletxeko bigarren solairuan arratsaldeko zazpietan eta gure ateak zabalik daude zuretzako.**
**Web orrialdea (www.danonartean.org) eta korreo elektronikoa (info@danonartean.org) daukagu**
**-**
**Posta helbide honetara idatzi dezakezu**
**Gaztelumandi 3-3B**
**48195 Larrabetzu.**

**Telefono hauetara deitu dezakezu: 665721733 - 652765180**
**-Kalean bertan nahi duzuena galdetu dezakezue.**

**URTE BARRI ZORIONTSUENA IZAN DEZAZUELA**

# danon artean

## Editorial

El 27 de Mayo alcanzamos nuestro objetivo: sumar una tercera identidad ideológica a las dos existentes en Larrabetzu. El trabajo a contrarreloj de las cuatro semanas previas a las elecciones, dio su fruto; logramos un concejal con el 17% de los votos.

Esto y el trabajar juntos durante estos 7 meses, nos ha hecho ver la necesidad de crear un grupo político local de Larrabetzu. Ya tenemos en el registro los documentos necesarios para ello; se llamará **danon artean** y su anagrama será el que podéis ver al comienzo de este boletín. **danon artean** tomará sus propias decisiones, y trabajará en el ayuntamiento mediante su concejal de EB.B-Aralar. **danon artean** se situará en el amplio espacio político de EB.B-Aralar, y tendrá su propia asamblea. Aún siendo uno solo el concejal con el que **danon artean** cuenta, las decisiones de este tienen mucho peso. Por ello, os pedimos que contactéis con nosotras/os (mirar último apartado del boletín); vuestras aportaciones en las decisiones del día a día nos enriquecerán.



**Objeto del boletín.**
**1-**Presentaros la creación de **danon artean** como grupo político de carácter local.
2-Cumplir con la palabra que dimos en mayo de abrir la candidatura a quien se sienta interesado/a.
3- Insistir en la necesidad que tiene el grupo de contar con gente para participar en la creación de los consejos sectoriales de participación ciudadana en el Ayuntamiento.

## Tres noticias de Urbanismo

**El Plan de Urbanismo**. Por desacuerdo con el modelo de crecimiento propuesto y la poca o nula participación de la ciudadanía en el proceso de redacción del Plan, se ha tomado la decisión de desistir del mismo. Los tres partidos del ayuntamiento trabajan de forma conjunta en el diseño de una nueva metodología de trabajo que garantice la participación ciudadana.



**Irregularidades en las licencias de obras de Elizoste 7, Elizoste 9 y Errebale 2**. Consideradas las tres como bienes patrimoniales de carácter local, se han suspendido las licencias otorgadas a Elizoste 7 y 9 y se ha corregido el de Errebale 2. Los tres grupos políticos están analizando en profundidad las alegaciones formuladas por un vecino y los informes del arquitecto y el jurista del Ayuntamiento. La destrucción del patrimonio y las licencias concedidas con unos incrementos de volumen más que significativos, son motivo de onda preocupación para este grupo político. Esto nos lleva a formularnos la siguiente pregunta: Cuales son las medidas a adoptar y las responsabilidades a asumir para restablecer la legalidad urbanística? Y una segunda Cuando tengamos tres nuevas edificaciones en Larrabetzu, donde habrá quedado su patrimonio original?

**Rotonda de Eleizalde** Para distribuir el tráfico a los barrios y a las actuales y futuras edificaciones y para moderar la velocidad de circulación se ha realizado un proyecto de rotonda para Eleizalde. Esta rotonda posibilitará la peatonalización del núcleo urbano. Asimismo hay otro proyecto de rotonda en Goikola. El Ayuntamiento aún tiene poca información pero quienes estén interesadas/os, pueden solicitar la consulta de algún plano.

# El trabajo municipal

**El ambiente de trabajo**. Desde las elecciones de mayo ha transcurrido ya medio año y ha llegado el momento de hacer una primera valoración de la nueva situación del Ayuntamiento. Después de la confrontación vivida los anteriores años, parecía que el ambiente en el Ayuntamiento también iba a ser difícil, pero hasta ahora el trabajo entre los tres grupos ha sido claro y fructífero. Muestra de ello la aprobación final de los impuestos y tasas para el año 2008, tras el trabajo conjunto entre los tres grupos.



**Participación**. En breve, los/as larrabetzuarras podrán tomar parte en los Plenos del Ayuntamiento, los jueves de la cuarta semana de cada mes, a las 8 de la tarde. Los tres grupos están preparando la normativa para llevar a cabo esta participación. Además, se ampliará la participación de los/as ciudadanos/as también a las comisiones municipales

**Presupuestos**. Se ha abierto el proceso para recibir sugerencias de los/as ciudadanos/as para realizar los presupuestos del 2008 y el Ayuntamiento difundirá la información a todas las casas. Os animamos a participar. El día 9 asamblea en Anguleri y el 14 último día para las sugerencias.

**Sueldo del alcalde**. El sueldo anterior del alcalde era de 48.000€, EB,B-Aralar propuso 40.000 y EAE-ANV 32.000 por acuerdo entre EAE-ANV y EB,B-Aralar se decidió establecerlo en 36.000 euros.

Por último, los grupos municipales han hecho propuestas para regular el trabajo del alcalde y los/as concejales de ahora en adelante.

# Nuestra identidad

La idea ***danon artean***: Las actividades públicas en el Ayuntamiento y en el pueblo tienen que hacerse con la implicación de los tres grupos políticos y, las vías que se elijan, deben animar a participar y hacer que los tres sean protagonistas. Hoy se puede decir que el Ayuntamiento se gestiona entre los tres grupos políticos y el mérito de esta situación es de todos/as.

**Acción municipal.** El Ayuntamiento es la institución que tenemos para organizar la vida en común. Entendemos que el Ayuntamiento, en cuanto que es el mejor representante de los/as ciudadanos/as, es protagonista y animador de la realidad social cultural económica o deportiva. Pero para hacer esto realidad es imprescindible que los/as ciudadanos/as quieran asumir su protagonismo personal.

**Participación**. Se necesitan formas para que las opiniones diarias de los/as ciudadanos/as lleguen al Ayuntamiento y estas vías se están poniendo en marcha. En urbanismo, en la aprobación de los presupuestos, impuestos y tasas se deben tomar medidas para conocer las opiniones de los/as ciudadanos/as. Hablar con el alcalde y los/as concejales/as, utilizar el buzón del Ayuntamiento e internet, participar en las reuniones municipales, etc. El Ayuntamiento, por su parte, además del pleno y las comisiones, tiene algo más que ofrecer: conversaciones directas, internet, la revista municipal, y las reuniones municipales. Cómo hacer todo eso es el trabajo que tenemos para los próximos cuatro años.

**Ideario político de principios básicos**. La meta y el camino los dos son importantes pero queremos insistir en lo segundo. Un camino humano garantiza una meta humana. Estos tres son los principios de nuestro trabajo:

1. La práctica y la reivindicación de las vías pacíficas de hacer política.
2. La reivindicación de los derechos humanos, civiles y políticos.
3. La oposición clara y general a cualquier tipo de estrategia político militar y represión política.

Estos tres pilares forman el camino de ***danon artean***; si se quita una, el camino se corta, y por eso, practica y exige las formas humanistas de hacer política.




# Contacto

Si quieres ponerte en contacto con nuestro grupo, para hacernos llegar sugerencias, para presentar ideas y para trabajar con nosotros/as, tienes varias formas:

- nos reunimos cada lunes en la segunda planta del Ayuntamiento a las 7 y nuestras puertas están abiertas para todos/as.
- tenemos página web (www.danonartean.org) y puedes utilizar el correo electrónico(info@danonartean.org)

-puedes escribir a esta dirección postal:
Gaztelumendi kalea 3 – 3.B
48.195 Larrabetzu

- puedes llamar a estos teléfonos: 665.72.17.33 – 652.76.51.80
- en la misma calle nos podéis hacer llegar vuestras sugerencias.

**OS DESEAMOS UN FELIZ AÑO NUEVO**